

Euskarazko erroreen sailkapena

ERROREAK eta DESBIDERATZEAK datu-baseetan

**Aldabe I., Aldezabal I., Aranzabe M., Arrieta B., Díaz de Ilarraza A.,
Gojenola K., Maritxalar M., Oronoz M., Otegi A., eta Uria L.**

BARNE-TXOSTENA

IXA taldea

EHU

2005eko azaroa

Euskarazko errorearen sailkapena

ERROREAK eta DESBIDERATZEAK datu-baseetan

ABSTRACT-a

Txosten honetan euskarazko errorearen sailkapena garatzerakoan jarraitutako urratsak eta hartutako erabakiak aurkezten ditugu. Errorearen Analisia garrantzitsua da Lengoaia Naturalaren Prozesamenduaren (LNP) alorrean, eta horrexegatik, erroreak sailkatzeko eta biltegitzeko, baita corpus erroredun bat osatzeko ere, garatu dugu hemen aurkezten dugun euskarazko errorearen sailkapena. EHUKo IXA taldean kokatzen da lan hau, konkretuki hizkuntzen i(ra)kaskuntzaren alorrean eta errorearen tratamendu automatikoan. Osatu dugun errorearen sailkapena ERROREAK datu-basearen diseinuan integratu dugu; eta DESBIDERATZEAK datu-baseak ere sailkapen bera baliatzen du, bi datu-baseen arteko integrazio prozesu bati esker. ERROREAK datu-basea Erreus web aplikazioaren oinarritzko baliabide bat da; errorearen datu-base bat da, errorearen tratamendu automatikorako nahiz gramatika eta estilo zuzentzaile baten garapenerako behar adina ikerketa egiteko informazioa biltzen duena. DESBIDERATZEAK datu-basea berriz, Irakazi web aplikazioak erabiltzen duen baliagaia da, ERROREAK datu-basearekin batera. Aplikazio hau Ordenagailuz Lagundutako Hizkuntzen Ikaskuntza Adimendunaren (OLHIA) ingurune zabal baten garapenean kokatzen da eta aplikazioa ikasleen desbideratzeen diagnostia lantzeko diseinatu dugu. Beraz, helburu ezberdinak dauzkaten arren, bi datu-baseek (ERROREAK eta DESBIDERATZEAK) sailkapen bera dute oinarrian. Euskarazko errorearen sailkapena aipatu datu-baseen interfaze erabilerraz batean inplementatu dugu, Interneten erabilgarri dago eta dinamikoa da, biltzen ditugun datuen arabera eguneratu eta aldatu ahal izateko.

Hitz-gakoak: linguistika konputazionala; errorearen analisia; errorearen sailkapena; hizkuntzen ikaskuntza/irakaskuntza; errorearen tratamendu automatikoa.

ABSTRACT

In this document we present the process followed and the decisions made when developing an error classification for Basque. As Error Analysis (EA) has become so important within the Natural Language Processing (NLP) field, we have built an error classification for Basque in order to store and categorise error instances as well as to gather error corpora. This work has been carried out in the IXA research group (University of the Basque Country), specifically in the fields related to language learning/teaching and automatic error treatment. The error classification has been integrated in the design of the ERROREAK database; and it is also used by the DESBIDERATZEAK database since the two databases have been integrated. The ERROREAK database is the basis of the Erreus web application, a repository of error corpora which provides information for automatic error treatment as well as for the development of a grammar and style checker for Basque. DESBIDERATZEAK, on its part, is a database used by the Irakazi web application, which has been designed within an extensive ICALL environment for the diagnosis of Basque learners' deviations. Although they have been created for different purposes, the two databases (ERROREAK and DESBIDERATZEAK) have the same error classification in their basis.

This error classification has been implemented in the user friendly interfaces of the mentioned two data-bases, it is already available via Internet, and it is dynamic to be able to be updated or changed depending on the data we collect.

Key words: computational linguistics; error analysis; error classification; language learning/teaching; automatic error treatment.

Euskarazko erroreen sailkapena

ERROREAK eta DESBIDERATZEAK datu-baseetan

1.- Sarrera

2.- Erroreen Analisia eta *errore* kontzeptua

3.- Euskarazko erroreen sailkapena

3.1.- Sarrera

3.2.- Sailkapenaren egitura

3.3.- Finkatutako irizpideak

3.4.- Hartutako erabaki linguistiko nagusiak

- Errore **Ortografikoei** dagokienean
- Errore **Lexikoei** dagokienean
- Errore **Morfologiko, Sintaktiko eta Morfosintaktikoei** dagokienean
- **Nozioei** dagokienean
- Errore **Semantikoei** dagokienean
- **Puntuazio ikurrei** dagokienean
- **Estilo kontuei** dagokienean
- **Bestelakoak** atala
- Eztabaidatutako beste puntu batzuk

4.- Erroreen zuzenketa

5.- Erroreen sailkapenaren ebaluazioa

6.- ERROREAK eta DESBIDERATZEAK: bi ikuspegi ezberdin

sailkapen berean

6.1.- Sarrera

6.2.- Bi datu-baseen integrazioa

6.3.- Sailkapenaren erabilera publikoa eta pribatua

7.- Ondorioak eta etorkizuneko lana

Erreferentziak

1.- Sarrera

EHUko IXA ikerkuntza taldean dagoeneko LNPko hainbat tresna garatu ditugu. *Euskararen i(ra)kaskuntza* azpitaldean, erroreen analisia eta hauen tratamendu automatikoa ikertzen ari gara, besteak beste. Eta alor honetan egiten ari garen ikerketen ondotik ekarpen interesgarriak egin ditzakegula eta tresna berriak garatzeko aukerak ditugula aurreikusten dugu.

Orain dela urte batzuk hasi ginen erroreen detekzio eta tratamendu automatikoan lanean zuzentzaile ortografiko sendo bat sortzeko helburuarekin. Horrela jaio zen *Xuxen* (Aduriz *et al.*, 1992)¹. Gero, zuzentzaile gramatikal bat garatze aldera, testu erroredunak biltzeko eta errore hauek datu-base batean sailkatzeko beharra ikusi genuen. Eta honelaxe ekin genion txosten honetan aurkezten dugun euskarazko erroreen sailkapenari.

Sailkapen hau, gaur egun, bi datu-base ezberdinen oinarri bilakatu da: ERROREAK datu-baseak gramatika eta estilo zuzentzailea garatzea du helburu; DESBIDERATZEAK datu-basea, berriz, ikasleek egindako desbideratzeen diagnostia egiteko eta informazio psikolinguistikoa gordetzeko osatu dugun datu-basea da, euskara irakasleentzako diseinatua batik bat. Bi datu-baseek helburu ezberdinak badituzte ere, biek dute komunean hizkuntz erroreen bilketa. Izan ere, erroreen ikerketa sistematikoa ezinbestekoa zaigu bai gramatika zuzentzaile baten garapenerako eta bai Ordenagailuz Lagundutako Hizkuntzen I(ra)kaskuntzaren alorrean. Honela bada, datu-base hauetan jasotzen dugun informazioa baliagarria izango zaigu bi alor hauetan azterketa ezberdinak burutzeko eta aplikazio berriak sortzeko. Eta, bidenabar, erroredun corpusa osatzen joango gara garatzen ditugun tresnak probatzeko eta ebaluatzeko. Esan, baita ere, erroreen sailkapen hau dinamikoa dela eta, beraz, fenomeno linguistiko berriak detektatu ahala eguneratu eta aldatu ahal izango dugula.

Txosten hau honela antolatu dugu. Bigarren atalean Erroreen Analisia eta errore kontzeptua ditugu mintzagai. Hirugarren atalean osatu dugun euskarazko erroreen sailkapena aurkezten dugu; sailkapenaren egitura, finkatu ditugun irizpideak eta hartutako erabaki linguistiko nagusiak. Laugarren atalean erroreen zuzenketari buruz hitz egiten dugu. Bosgarren atalak sailkapenaren ebaluaziotik ateratako ondorio nagusiak laburtzen ditu. Seigarren atalean oinarrian sailkapen bera konpartitzen duten bi datu-baseak deskribatzen ditugu, ERROREAK eta DESBIDERATZEAK izenekoak; bi datu-baseen integrazioa laburki azaldu eta izango duten erabilera publiko nahiz pribatua esplikitzen dugu. Azkenik, ondorio batzuk eta etorkizuneko lanak azpimarratu nahi izan ditugu zazpigarren atalean.

2.- Erroreen Analisia eta *errore* kontzeptua

Erroreen Analisia teoria oso kritikatuia izan zen 1967an S. Pit Corder-ek “*The Significance of Learners’ Errors*” argitaratu zuen arte. Handik aurrera, ikuspuntu hori onera aldatzen hasi zen, erroreen inguruan egin diren ikerketek emaitza positiboak erakutsi baitituzte hizkuntzen i(ra)kaskuntzaren alorrean. Izan ere, “*existe una nueva concepción de los errores... los errores se valoran ahora, además de como paso*

¹ *Xuxen*, IXA taldeak garatutako zuzentzaile ortografikoa da, Microsoft Office-n, OpenOffice-n eta OCRn integratzen dena.

obligado para llegar a apropiarse de la lengua, como índices del proceso que sigue el aprendiz en ese camino... las producciones 'incorrectas' del aprendiz de una L2 serían marcas, también, de los diferentes estadios del proceso de apropiación de la lengua" (S. Fernández 1997). Eta egia da, erroreak sailkatuz "*se podría aprender mucho sobre el proceso de ASL (Adquisición de Segundas Lenguas) infiriendo las estrategias adoptadas por los aprendices de SL (Segundas Lenguas)*" (Larsen-Freeman, D. y H. Long, M., 1994). Gaur egun, gainera, teknologia berriek azken urteotan hartu duten indarra medio, Ordenagailuz lagundutako Errore Analisiak (OEA) EA tradizionalak zituen mugak gainditu ditu eta ikerketak asko bizkortu dira. Beraz, hizkuntz ikasleek egindako desbideratzeak aztertuz, jakin ahal izango dugu, besteak beste:

- ikasle bakoitzak zenbateraino menderatzen duen ikasten ari den hizkuntza;
- nola ikasten den hizkuntza berri bat;
- zein diren hizkuntza bat ikastean ikasleek aurkitzen dituzten zailtasun nagusienak;
- eta abar.

Eta hau guztia jakinik, materialak eta laguntza-tresnak egokitu ahal izango dira ikasle bakoitzaren mailara eta beharretara.

Honez gain, Ordenagailuz lagundutako Erroreen Analisia baliagarria da, baita ere, hizkuntzaren tratamendu automatikorako. Eta guk aipatu bi alorretarako burutzen dugu OEA.

Errore kontzeptuari dagokionean, definizio eta hitz asko erabili izan dira literaturan. Txosten honen helburua ez da, inondik ere, errore kontzeptuaren inguruan jardutea. Baina hemen aurkezten dugun erroreen sailkapena bi ikerkuntza-alor ezberdinetan erabiltzen denez, komeni da, aurrera jarraitu aurretik, ondoko hiru kontzeptu hauek definitzea eta bereiztea: **erroreak**, **desbideratzeak** eta **estilo kontuak**. Guk gramatikalki zuzena ez den edozein egitura kontsideratzen dugu errore, hau da, edozein output ez-gramatikal. Desbideratzeak, berriz, hizkuntz ikasleek erabiltzen dituzten egitura ez-gramatikalak edota egokiak ez direnak (adibidez, egitura/hitz bat ekiditea edota maizegi erabiltzea) dira. Izan ere, "*errore terminoak automatikoki zuzenketa hitza dakarkigu burura. Zenbait metodoaren arabera, ikasle batek errore bat eginez gero, zerbait gaizki egin duela esan nahi du. Kontzepzio honetan ikaslearen ikaste-prozesu progresiboa baztertzen da nolabait*" (M. Maritxalar, 1999 – 37. orria). Guk, gure aldetik, DESBIDERATZEAK datu-basean bildutako adibideak ez ditugu errore kontsideratuko, desbideratzeak baizik; garbi baitugu desbideratzeek ikaslearen ikaste-prozesua islatzen dutela, ikasleak ikaste-prozesuan zehar osatzen duen tartehizkuntzaren parte direla, eta ez gaizki egiten duen zerbait. ERROREAK datu-basean, ordea, denak erroreak izango dira, datu-base honi ez baitzaio ikuspuntu psikolinguistikoa interesatzen. Eta salbuespen gisa *Estilo kontuak* kategoria dugu, egitura gramatikalak, baina ez egokiak, sailkatzeko. *Estilo kontuak* erroreak ez diren arren, sailkapenean atal hau gehitzea garrantzitsua iruditu zaigu, bertan jasotzen ditugun datuak baliagarriak izango zaizkigulako estilo zuzentzailea garatzerakoan.

Bereizketa hau egitea garrantzitsua deritzogu gure datu-baseetan euskara ikasleen desbideratzeak, erroreak eta estilo kontuak biltzen, sailkatzen, aztertzen eta tratatzen ditugulako.

3.- Euskarazko erroreen sailkapena

3.1.- Sarrera

Hemen aurkezten dugun euskarazko erroreen sailkapenaren oinarrian hainbat lan dago egina aurretik. Orain dela urte batzuk, *Xuxen* zuzentzaile ortografikoa garatzeko hitz-mailako sailkapen bat osatu zen IXA taldean (Aduriz, 1994). Geroztik, eta zenbait fenomeno konkretu kontuan hartuz, esaldi mailako sailkapen batzuk garatu dira, besteak beste, Maritxalar (1999), Gojenola (2000), Gojenola eta Oronoz (2000). Zuzentzaile gramatikal bat garatze aldera, ordea, beharrezkoa ikusi genuen sailkapen orokorrago bat; eta honela, testu erroredunak biltzeko helburuarekin jaio zen ERROREAK datu-basea, oinarrian sailkapen bat zuela (A eranskina).

Datu-basea betetzen hasteko eta beronen baliagarritasuna ebaluatzeko, Hiztek² graduondoko ikasleei eta taldeko hizkuntzalariei ERROREAK datu-basean hainbat adibide erroredun sartzeko eskatu zitzairen. Orduan, testu errealetan topatutako errore batzuk sailkatzeko zenbait kategoria faltan bota genituen; eta, beraz, sailkapena osatzeko eta berregituratzeko azterketa berri bat egin dugu aurrekoaren gainean.

Euskarazko erroreen sailkapena *Euskal Gramatika Osoan* (Zubiri *et. al.*, 1995) oinarrituta dago batik bat. Hala ere, bibliografia zabala kontsultatu dugu bai euskarazko gramatika nahiz sailkapen ezberdinak alderatzeko eta bai beste hizkuntzatan zehaztu diren sailkapen ereduak ezagutzeko. Honekin batera, taldean aurretik egindako hainbat sailkapen ere lagungarriak izan zaizkigu. Euskaltegietako ikas programak eta maila bakoitzean irakasten diren gramatika-edukiak ere kontuan izan ditugu; eta testuetan topatu ditugun errore eta desbideratze-adibideak ere bai.

3.2.- Sailkapenaren egitura

Erroreak sailkatzeko modu asko daude. Esaterako, *“errors can be classified according to basic type: omissive, additive, substitutive or related to word order. They can be classified by how apparent they are: overt errors ... and covert errors. Errors may also be classified according to the level of language: phonological errors, vocabulary or lexical errors, syntactic or grammatical errors, and so on...”* (Wikipedia).


Guk, **sailkapenaren taxonomia nagusia** finkatzerakoan abantaila handiak ikusi genizkion ikuspegi ezberdinak nahasteari; alegia, maila linguistikoaren eta azaleko mailaketaren ikuspegiak konbinatzeari. Badira bi egitura motak nahastearen alde agertu direnak. **Granger** (2003)-ek adierazi legez, *“there are two major descriptive error taxonomies:*

- *one based on linguistic categories (general ones such as morphology, lexis, grammar, and more specific ones such as auxiliaries, passives, and prepositions).*
 - *the other focusing on the way surface structures have been altered by learners (e.g., omission, addition, misformation, and misordering).*
- There is a great benefit to combining them”.*

² HIZTEK, Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen duen Gradu-ondoko titulua da. Master honetan IXA taldeak parte-hartze handia du.

Guk ere bi ikuspegiak batu ditugu: **azaleko mailari** dagokion sailkapena eta **maila linguistikoari** dagokiona. Honela, errore ortografikoak hitzen azaleko egituraren arabera sailkatu ditugu (letrak kendu, gehitu, ordezkatu, lekuz aldatu...); errore ez-ortografikoak, berriz, kategoria linguistiko orokorretan (lexikoa, morfosintaxia, semantika...) eta azpikategoria zehatzagoetan (aditza, izenordaina, deklinabidea, etab.).

Kasu bietan, kategoria/azpikategoria bakoitzak kode bat du (Maritxalar, 1999), azalpen bat eta errore-mota horren adibide bat, gutxienez. Honela, zuhaitz moduko hierarkia bat osatu dugu: kategoriak eta azpikategoriak zuhaitzaren maila ezberdinetako adarrak lirateke, hostoek errorean/desbideratzeen informazio teknikoa eta/edo psikolinguistikoa gordeko lukete eta gordetako erroreak/desbideratzeak hosto horien adibideak lirateke (1. irudia):



1. irudia: sailkapenaren egituraren adibidea

Sailkapena dinamikoa denez, jasotzen ditugun adibideen arabera fintzen joango gara. Hau da, metaforikoki esanda, linguista konputazionalak historik gabeko adarrak kimatu ahal izango ditu, edota berriak txertatu, adar beretik zintzilik elkarrekin multzoka daitezkeen hosto gehiegi baldin badaude. Momentu honetan, sailkapenak 7 kategoria nagusi dauzka (1. Errore ortografikoak; 2. Errore lexikalak; 3. Errore morfologiko, sintaktiko eta morfosintaktikoak; 4. Nozio-erroreak; 5. Errore semantikoak; 6. Puntuazio ikurrak; eta 7. Estilo kontuak) eta 155 azpikategoria, hauetatik 129 hostoak direlarik.

3.3.- Finkatutako irizpideak

Sailkapenaren inguruan hainbat irizpide finkatzeko eta zenbait erabaki hartzeko bilera batzuk egin genituen: hiru hizkuntzalari bildu ginen hiruzpalau aldiz sailkapenaren ikuspegi linguistikoa aztertzeko; informatikariek ere, beren aldetik, bilera batzuk egin zituzten alderdi konputazionalari dagozkion kontuak eztabaidatzeko. Gero, hizkuntzalarien eta informatikarien artean bildu ginen sailkapenaz eta, oro har, erroreen tratamenduaz jarduteko, gure ikuspuntuak edota iritziak trukatzeko eta erabaki batzuk hartzeko. Sailkapen berria (B eranskina) bilera horien emaitza da.

Jarraian, hizkuntzalarion bileretan hitz egindako gai nagusienak eta finkatutako irizpide garrantzitsuenak laburtzen ditugu:

- Hasiera batean (A eranskina), erroreen **kategoriak, azalpenak eta zergatiak nahastuta** zeuden; maila berdinetan agertzen ziren (2. irudia):

1.- Ortografikoak ← kategoria
1.4.- Latinajoak ← zergatia
2.- Sintaktikoak, morfologikoak eta morfosintaktikoak ← kategoria
2.6.- Egitura eginak ← azalpena
2.6.1.- Graduatzaileak ← kategoria
2.6.2.- Harik eta... arte ← azalpena
2.6.3.- Ezta... ere ← azalpena

2. irudia: kategoriak, azalpenak eta zergatiak maila beretan

Mailaketa hau bateratzea komeni zela ikusi genuen, kategoriak kategoriekin eta azalpenak azalpenekin parekatuz. Errorearen zergatia, bestalde, ez dela sailkapenari dagokion kategoria bat adostu genuen.

- Honez gain, **errore-adibideak modu ezberdinetan sailkatzeko aukera zegoen**: errorea bera deskribatuz (*s z-ren orde z idatzi du*), zuzenean errorea emanaz (*araso*), forma egokia zein litzatekeen zuzenean azalduz (*z behar luke s beharrean*), etab. (ikus 3. irudia).

"s"-ren ordeaz "z" ipintzea.
"z"-ren ordeaz "s" ipintzea.
z-ren ordeaz s jartzea
"s"ren ordeaz "z" jartzea
's' eta 'z'-ren arteko nahasketa
"s" jartzea "z" ordeaz
araso
"z"ren ordeaz "s"jartzea
"z" jarri ordeaz "s"

3. irudia: S/Z nahastu direla esateko modu ezberdinak

Honen aurrean, erroreak definitzeko modu ezberdinak aztertu genituen. Bi modu nagusi daude: erroreak aurrez hautatutako kategorietan sailkatzea edo kategoriak erroreen arabera sortzea (Norrish, 1989). Guri aukera biak konbinatzea iruditu zitzaigun egokiena. Bi ikuspegi hauen arteko konbinaketak sailkapen dinamiko bat edukitzeko aukera eskaintzen digu eta, beraz, adibide berriak atera ahala sailkapena osatu, aldatu eta eguneratu ahalko dugu.

- Taldeko beste sailkapenak³ kontuan izanik, **errore ortografikoak** eta **ez-ortografikoak bereizi** eta honela **definitu** ditugu:

- errore ortografikoak unitate gisa beti gaizki dauden hitzak dira, *Xuxenentzat* ere errore direnak;
- errore ez-ortografikoak, berriz, ortografikoki ongi egon arren testuinguru sintaktikoan edo semantikoan zuzenak ez diren kasuak dira.

- Errore ortografikoen barruan **letrak kendu**, **gehitu**, **ordezkatu**, eta **ordenaz aldatu** azpikategoriak dauzkagu, besteak beste. Eta errore ez-ortografikoen barruan ondoko azpiatal hauek bereizi ditugu:

- **errore lexikoak:** batez ere sorkuntzarekin zerikusia dutenak, *asmakuntzak*⁴.
- **errore morfologikoak, sintaktikoak, morfosintaktikoak:** ortografikoki ondo egon arren testuinguru morfosintaktikoan gaizki dauden egiturak.
- **nozio-erroreak:** nozioekin erabiltzen diren egitura ez-zuzenak.
- **errore semantikoak:** ortografikoki nahiz sintaktikoki ongi daudenak, baina testuinguruan edota esanahiari dagokionean zentzurik ez dutenak.
- **puntuazio ikurrak:** puntuazio ikurren erabilerari dagozkion erroreak.
- **estilo kontuak:** sintaktikoki ondo egon arren, estilo aldetik hobetu daitezkeen egiturak.

- Sailkapen edo bereizketa hau egiterakoan, zalantzak izan genituen konputazionalki lexiko mailan tratatzen diren hainbat errore partikularrekin, besteak beste:

- *haundi → handi
- *laister → laster
- *eritzi → iritzi

³ Maritxalar (1999), Gojenola (2000), Gojenola eta Oronoz (2000), besteak beste.

⁴ Errore lexikoen atalean, gehienak asmatutako hitzak direnez, ortografikoki gaizki dauden adibideak topatuko ditugu. Hauek izango dira, ortografikoetatik kanpo, errore ortografikoak erakuts ditzaketan salbuespen bakarrak. Adibidez: *hautoki; errore ortografikoa izan arren, asmatutako hitz bat da.

Ez genekien mota honetako kasuak non sartu, *Errore ortografikoetan* ala *Lexikoetan*. Azkenean, kasu hauek *Ortografikoak* (*letra bat kendu* edo *gehitu*) kategorian sailkatzea erabaki dugu:

- hartutako irizpide nagusiarekin koherenteak izateko.
- azken finean, errore ortografikoak direlako.
- kanpoko erabiltzaileek ez dutelako gure ikuspegi konputazionala (eta beraz, ezinezkoa zaie lexiko mailan tratatzen ditugun hitzak zeintzuk diren jakitea).

Kasu partikular hauek asko ez direnez, Erreus aplikazioaren alde pribatuan (6.3. puntua) kontrolatu ahal izango ditugu.

- Errore ortografiko/ez-ortografiko bereizketari dagokionean, esan behar dugu, baita ere, dagoeneko garatuak dauzkagula errore ortografikoak maila lexikoan harrapatzen dituzten tresna automatikoak. Beraz, biltzen ditugun **errore ortografikoak** ez ditugu baliatuko tratamendu automatikorako. Baina ondo etorriko zaizkigu **aplikazio pedagogikoetarako**, hau da, euskara ikasten ari direnei ortografia lantzen laguntzeko. **Errore sintaktikoen bilketa**, berriz, informazio iturri aberatsa izango da bai **gramatika eta estilo zuzentzailea garatzeko** eta bai **Ordenagailuz Lagundutako Hizkuntzen Ikaskuntza Adimendunaren (OLHIA) ingurunean aplikazio berriak sortzeko**.

- Honen haritik, esan **errore ortografikoak hitz mailan** tratatuko ditugula eta **ez-ortografikoak**, berriz, **maila sintaktiko-semantikoan**⁵, kasu hauetan testuingurua ezinbestekoa baitzaigu. Izan ere, gertatzen da hitz bat testuingururik gabe zuzena izan arren testuinguru jakin batean erroreduna izatea. Adibidez:

***neskek etxea ikusi du**

neskek, unitate lexiko bezala hartzen badugu, ez da erroreduna. Baina esaldi honetan ez da sintaktikoki zuzena, *neskek* subjektu pluralak *dute* laguntzailea eskatzen baitu edo *du* aditz laguntzaileak *neskak* subjektu singularra.

- Bestalde, aurreikusi dugu erroreak edo desbideratzeak sailkatzea, batzuetan, ez dela batere erraza, kasu batzuk kategoria batean baino gehiagotan sailka baitaitezke:

***Guk geu**

Adibide hau, esaterako, gure sailkapenean bi kategoria ezberdinetan sar daiteke: *Izenordainak* kategorian edota *Komuntadura eza Izen Sintagma* kategorian. Kasu hauetan, sailkatzen duenaren esku geldituko da zein kategoriatan sartu.

3.4.- Hartutako erabaki linguistiko nagusiak

Ez da erraza honelako sailkapen bat osatzea; alde batetik, ezinezkoa delako errore mota guztiak aurreikustea; bestetik, guk aurreikusitako erroreak ez dutelako testu errealetan zertan azaldu; baita ere, kategoria batean baino gehiagotan sar daitezkeen azpikategoriak non kokatu erabakitzea zaila gertatzen delako, eta abar. Horregatik, gure

⁵ Esaldi, perpaus eta sintagma mailan, hain zuzen.

helburu nagusienetako bat ahalik eta errore mota gehien biltzeko aukera ematen duen sailkapen zehatz eta osatu bat berrantolatzea izan da.

Jarraian, hizkuntza aldetik eztabaidatu ditugun puntu nagusienak azaltzen ditugu:

- Errore *Ortografikoei* dagokienean:

• *Errore Ortografikoei* esleitutako kodeen oinarria (Maritxalar, 1999)-n asmatutako kode-sistema da:

- hierarkian ordena bat egon dadin, **LE**trak **K**endu/**G**ehitu **H**asieran, **T**artean, **B**ukaeran ordena mantenduko dugu;
- zein letra(k) gehitu, kendu edo ordezkatu d(ir)en zehaztuko dugu;
- ez ditugu kode posible guztiak hasieratik jarriko, errore-mota usukoenei dagozkienak bakarrik baizik;
- adibide berriak *Bestelakoak* atalean sartzen joango gara (kategoria bakoitzean dago *Bestelakoak* eremu bat) eta, beharra ikusiz gero, gune pribatutik (6.3. puntua) sartu ahalko dira kode berriak, sailkapenaren izaera dinamikoari esker.

• *Errore Ortografikoetatik* Letra/Morfema bereizketa kentzea erabaki dugu, eta denak letra(k) kontsideratu ditugu (bereizketa hau ez baita beharrezkoa erroreak automatikoki harrapatu ahal izateko).

• A organikoarekin egiten diren erroreak/desbideratzeak *Ortografikoetan* sartuko ditugu (A letra Gehitu/Kendu), erroreak harrapatzeko ez baita beharrezkoa ‘a’ hori deklinabide-morfema den ala ez zehaztea:

1.1.- LEtrak Kendu:

LEKTA (LEtra Kendu Tartean, A): *Donostitik

1.2.- LEtrak Gehitu:

LEGTA (LEtra Gehitu Tartean, A): *Azpeitiara

• Letrak ordenaz aldatu azpiatalean, ordenaz aldatzen den letra-kopuruak berdina izan behar du:

*p**R**obezia (pob**R**ezia)

*lu**T**Eke (lu**k**TE)

• Lemen lotura (hitzak banandu/elkartu) azpiatala *Ortografikoetan* sartu dugu, eta ez *Lexikoan* (ez baikara lexiko edo hitz berriak sortzen ari, daudenak gaizki erabiltzen baizik). (Zubiri 1995)-n ere irizpide bera jarraitzen da. Esan, gainera, *hitzak banandu* eta *gidoiak kendu* azpikategoriak direla, *Errore Ortografikoen* barruan, hitz bat baino gehiago sartzea onartzen duten atalak (*bait du, *jaun andre...); gainontzeko kasuetan, hitz bakar bat sartu ahal izango da.

• Gidoiak letrak izan ez arren, *Errore Ortografikoetan* sailkatu ditugu. Eta aipatu bezala, *gidoiak kendu* nahiz *hitzak banandu* azpikategorietan bi hitz baino gehiago sartu ahal izango dira.

- **Errore Lexikoei dagokienean:**

- Konputazionalki lexiko mailan tratatzen diren erroreak (*laister, *haundi, etab...) *Errore Ortografikoetan* sailkatuko ditugu.
- Hitz eratorriak eta asmatutako hitzak kodepe berean sartuko ditugu: **KONERA** (**KON**posizioa eta **ERA**torpena). Adibide gisa, *afaltzaile edo *haurtoki bezalako hitz asmatuak.
- Kolokazioak eta Esamoldeak ere batera sailkatuko ditugu: **ESAMOL** (**ESAMOL**deak) kodepean. Adibidea: *lur eta zur, *siesta bota...

- **Errore Morfologiko, Sintaktiko eta Morfosintaktikoei dagokienean:**

- Deklinabide-erroreak: ortografikoki gaizki baldin badaude, *Ortografikoetan* sartuko ditugu; ortografikoki ondo baina testuinguru morfosintaktikoan gaizki badaude, deklinabideari dagokion atalean. Horrela, gure irizpidearekin koherenteak gara. Beraz:
 - *soldatakin, **LEKTRE** (**LE**trak **K**endu **T**artean, **RE**) (+Ortograf. –Deklin.)
 - *institutuako, **LEGTA** (**LE**tra **G**ehitu **T**artean, **A**) (+Ortograf. –Deklin.)
 - *menditik ibili dira, **DEKL** (**DEKL**inabide kasu okerrak) (–Ortograf. +Deklin.)
- Deklinabidean, momentuz behintzat, ez ditugu kasu guztien (abs, erg, ine, adl, gen...) azpikategoriak jarriko; denak batera sartuko ditugu eta gero ikusiko dugu kasuka sailkatzeak merezi duen ala ez.
- Determinanteak azpikategoria eremua sortu dugu determinante mugatzaileekin egiten diren erroreak sailkatzeko; izan ere, 'a'/bat mugatzailea behar denean kentzea edo behar ez denean gehitzea askotan ematen diren erroreak dira.
- Izenordainen azpikategorian Izenordain ZehaztuGabeentzako atala ireki dugu.
- Izen arruntak eta bereziak gainerako hitzak bezala sailkatu ditugu, duten erroreak arabera (ortografikoa, deklinabidea...). Izenen generoa *Lexikoa* mailara pasa dugu eta izen zenbagarriak/zenbakaitzak *Nozioak* ataleko neurritasuna/kopurua azpikategoriara.
- Adjektiboak eta adberbioak kategoria berean sartu ditugu, kasu askotan nahastu egiten direlako.
- Aposizioen kategoria, momentuz, utzi egin dugu. Ikusiko dugu kategoria hau beharrezkoa den ala *Komunztadura eza Aposizioan* azpikategoria nahikoa dugun (aposizioetan ematen diren erroreak, gehienetan, komunztadurakoak izaten baitira).
- Aditzari dagokionean, denbora, aspektua eta modua ez bereiztea hobetsi dugu, askotan bereizketa zaila gerta daiteke-eta. Aditzaren flexioari dagozkion ezaugarriak, beraz, batera (**ADAM**, Aditzaren **Denbora**, **Aspektua** eta **Modua**).
- Nominalizazio-erroreak mendeko esaldiei dagokien azpikategorian sartu ditugu.

- Aditz paradigmaren atzetan sartzen diren erroreak batzuetan *Nozioak* kategoriako azpiataletan ere sartu ahal izango dira. Adibidez, ‘gosea daukat’ bezalakoak bi azpikategorietan sailka daitezke: *Aditzen paradigma* (3.7.2.1.- PARADIG_N_N-NK) eta *Nozioetan* (4.5.- Sentipenak: SENNOZ). Sailkatzen duenaren esku geldituko da zein kategoriatan sartu.

- Komunztadurari dagokionean: *Kasua - Numeroa* bereizteak zaildu egiten du sailkatze-lana, (bereizketa zaila baita), baina beharrezkoa ikusten da erroreen tratamendu automatikoari begira. *Komunztadura esaldian* azpiatalaren ordean, *Komunztadura mendekoetan* atala sartu dugu, zehatzagoa iruditzen zaigulako. Hor sartuko ditugu perpausa nagusia eta mendekoaren arteko komunztadura ezak (adb.: *goxoki asko jaten duen umeei kariesa dute).

- Juntagailuak eta Lokailuak puntu berean sailkatu ditugu.

- Zalanza izan genuen *Errore Morfologikoak, Sintaktikoak eta Morfosintaktikoak* bereizi ala ez. Baina bereiztekotan, nola? Non dago morfologia, sintaxia eta morfosintaxiaren arteko muga? Momentuz *Errore Morfologikoak, Sintaktikoak eta Morfosintaktikoekin* kategoriatan bakarria egitea erabaki dugu eta aurrerago ikusiko da kategoriatan hauek elkarrengandik bereizteak merezi duen ala ez.

- **Nozioei** dagokienean:

- *Nozioen* inguruan egindako erroreak *Morfologiko, Sintaktiko eta Morfosintaktikoetatik* kanpo sailkatzea erabaki dugu, tratamendu berezia baitute (I.Zubiri, 1995; N. Ezeiza, 2002; J.Hajic, 2004), nahiz eta erroreak batzuk bi azpikategorietan sailkatu ahal diren.

- Zenbakiek beren azpikategoria izango dute *Nozioak* kategoriaren barruan **mila bederatziehun* bezalako adibideentzat; **seirak* bezalakoak bi kategoriatan sailkatu ahal izango dira, bai *Zenbakiei* dagokien atalean eta bai *Errore Ortografikoetan*.

- **Errore Semantiko**ei dagokienean:

- *Semantikoak* atalean sartzea erabaki dugu testuinguru jakin batean ortografikoki nahiz sintaktikoki zuzenak baina semantikoki erroredunak diren esaldiak (adb: (*)ur asko jan nituen, (*)hazi dut ikasturtea).

- Hasieran separatu egin bagenituen ere, homofonoen eta pare dikotomikoen azpikategoriak bategitea erabaki dugu, biak puntu berean sartzea, kasuistika oso antzekoa biltzen baitute. Adibidez, (*)ari – (*)hari, (*)arrakasta – (*)arrastaka.

- **Puntuazio ikur**rei dagokienean:

- *Puntuazio ikurrak* kategoriatan puntuazio ikurren erabilerari dagozkion erroreak sartuko ditugu. Aurreikusitako kasu batzuk erroreak izango direla eta beste batzuk, berriz, *Estilo kontuak*. Hala ere, momentuz denak kategoriatan honetan sailkatzea izango dela

onena iruditu zaigu, eta errore-adibideak sartu ahala ikusiko dugu *Estilo kontuen* barruan *Puntuazio ikurrentzako* azpikategoriaren bat sartzeak merezi duen.

- *Estilo kontuei* dagokienean:

- *Estilo kontuak* gramatikalki ondo egon arren, estilo aldetik hobetu daitezkeen egitura gisa definitu ditugu. Berez, ez dira erroreak, baina sailkapenean atal hau gehitzea garrantzitsua iruditu zaigu, bertan jasotzen ditugun datuak baliagarriak izango zaizkigulako estilo zuzentzailea garatzerakoan.

- *Bestelakoak* atala

- Kategoria nagusi bakoitzean (ortografiko, lexiko, morfosintaktiko...) *Bestelakoak* azpiatala sartu dugu beheagoko kategorietara ala azpikategorietara egokitzen ez diren kasuak bertan sartzeko. Aurrerago, *Bestelakoak* azpiatalean sartu diren adibideak aztertu eta ikusiko dugu dauden errore motekin multzo berriak sor daitezkeen ala ez. Izan ere, sailkapena irekia da, dinamikoa, eta honek gure beharretara moldatzeko aukera ematen digu. Azken finean, zaila da oso errore mota posible guztiak aurreikustea eta, horregatik, hobe dugu kategoria berriak errore berriak atera ahala sartzen joan.

- Eztabaidatutako beste puntu batzuk:

- *Hizkuntza maila eta hobespenak* atala ezabatu egin dugu, bertan zeuden azpikategoriak beste atal batzuetan sartu ditugulako.

- Ezezko egiturak, momentuz, ez ditugu aparte sailkatuko; datozen egitura motaren arabera baizik (hau da, dagokien azpikategorian).

- Ez gara, momentuz, elipsiarekin sartuko.

- Aditzen azpikategoriazioa aipatu da hizkuntzalarion artean. Ikuspuntu honetatik, komunztadura kontzeptua, esaterako, askoz ere zabalagoa da; ez da mugatzen aditza, subjektua eta objektuetara bakarrik (ez zaio adizkiari soilik begiratzen); aditzek izan ditzaketen argumentu guztietara baizik. Baina erreoren sailkapena azpikategoriazioaren ikuspuntuan oinarritzea arriskutsua ikusi dugu, oso gai konplikatu delako. Hala ere, etorkizun batean ERROREAK datu-basea abiapuntutzat hartu eta hainbat ikerketa burutu daitezke azpikategoriazioari lotuta. Esaterako, *Aldezabal I. 2004n* azpikategoriazioa sakonki lantzen da eta ikerlan honen helburuetako bat erroreak zuzentzea zen. Interesgarria litzateke, adibidez, lan horretan azaltzen den datu-basean gordetako adibideak ERROREAK datu-basean jasotzen diren adibideekin alderatzea.

4.- Erroreen zuzenketa⁶

Erroreak zuzentzerakoan nola jokatu erabakitzea ez da erraza, baina ERROREAK eta DESBIDERATZEAK datu-baseetan zuzenketa ere sartuko direnez, irizpide batzuk finkatu beharra izan dugu. Hauek dira izan ditugun zalantza nagusiak:

- Esaldi berean errore bat baino gehiago baldin badago, denak zuzendu behar dira ala sailkatzen ari garen errorea bakarrik?:

***Tsakurra etorri du**

1. *errore ortografikoa*: ***tsakurra** → nola zuzendu?

errore ortografikoak hitz mailan sailkatzen eta zuzentzen direnez: **txakurra**

2. *errore sintaktikoa*: *aditz-paradigmen nahasketa*: ***etorri du** → nola zuzendu?

tsakurra etorri da (→ errore sintaktikoari dagokion zuzenketa bakarrik, ortografikoa bere horretan utziz) ala

txakurra etorri da (→ esaldi osoa zuzendu, errore sintaktikoa nabarmenduz)

- Errore batek zuzenketa posible bat baino gehiago baldin baditu, guztiak eman behar dira ala bakar bat nahikoa da?:

***Katuak ikusi dute**

1. *errore mota*: komunztadura eza subjektuaren eta aditzaren artean → Bi zuzenketa posible:

- Katuak ikusi **du**

- Katuek ikusi **dute**

2. *errore mota*: komunztadura eza objektuaren eta aditzaren artean → Bi zuzenketa posible:

Katuak ikusi **dituzte**

Katuak ikusi **ditu**

- Eta errorea(k) zuzentzean esaldi osoa berridatzi behar da ala erroredun zatia bakarrik?

***Tsoria etorri du** → nola zuzendu?

1. zuzenketa: **txoria etorri da**

2. zuzenketa: **tsoria etorri da**

3. zuzenketa: **etorri da**

4. zuzenketa: **da**

5. zuzenketa: **tsoria da**

Beraz, erroreak/desbideratzeak zuzentzeko aukera ezberdinak daude. Kontua da, gure bi datu-baseek helburu ezberdinak dituztela: euskararen i(ra)kaskuntza eta zuzentzaile gramatikala, hurrenez hurren; eta beraz, erroreak Erreus aplikaziotik sartzen dituzten linguista konputazionalak eta Irakazi erabiltzen duten irakasleek ez dituztela, seguruenik, ikuspuntu berberak izango erroreak zuzentzerakoan. Gainera, euskaltegietako irakasle batzuek komentatu digute orokorrean ez dela irizpide zehatzik jarraitzen zuzenketa egiterakoan, zuzenketa oso subjektiboa dela eta irakasle bakoitzak ezberdin jokatzen duela ikaslearen, honen hizkuntza-mailaren, testu-motaren, desbideratzearen garrantziaren, etab.en arabera. Beraz, oso zaila da zuzentzearen inguruan irizpide zehatzak finkatzea, eta ondorioz, uste dugu zuzenketa posible guztiak emateko aukera eskaintzea komeni dela⁷.

⁶ Eskuzko zuzenketa ari gara, ez zuzenketa automatikoa.

⁷ Erabakitzeke dago alde pribatuan zuzenketa nola jokatuko dugun, tratamendu automatikoari begira.

5.- Erroreen sailkapenaren ebaluazioa

Euskarazko erroreen sailkapen hau ebaluatzeko, 11 hizkuntzalariri ariketa bat pasa genien (D eranskina): 28 esaldi eman genizkien, errore bat edo gehiagorekin, B eranskinean agertzen den eskeman sailkatzeko. Ariketa honen bidez hizkuntzalariek erroreak nola sailkatzen eta zuzentzen dituzten ikusi nahi genuen:

- esaldi bakoitzean dauden errore guztiak sailkatzen dituzten, ala nagusienei bakarrik erreparatzen dieten.
- errore bakoitza kategoría posible guztietan sailkatzen duten, ala bakar batekin konformatzen diren.
- aurrena esaldia zuzentzen duten eta gero errorea sailkatu, ala behin errorea sailkatu ondoren proposatzen duten zuzenketa.
- erroreak banaka zuzentzen dituzten (esaldi osoa zuzendu gabe), ala esaldia bere osotasunean zuzentzen duten.
- sailkapena erraza eta osatua iruditzen zaien, ala aldaketa berriak proposatuko lituzketen.

Ariketa honetatik, ondorio nagusi hauek azpimarratu nahi ditugu (erantzunen emaitzak E eranskinean):

- Hizkuntzalari guztiak ez dira beti bat etorri erroreak sailkatzerakoan eta zuzentzerakoan. Baina, oro har, jaso ditugun emaitzak positiboak dira sailkapenari dagokionean (ikus datu zehatzak F eranskinean).
- Guztiak zorrotzak izan dira beren lanean. Errore batzuk sailkatzea erraza egin zaie, baina beste batzuen aurrean zalantza handiak izan dituztela aitortu digute, errore morfosintaktikoen kasuan, batik bat.
- Badaude kategoría batean baino gehiagotan sailka daitezkeen errore-motak. Guk hamaika esalditan aurreikusi genuen aukera hori. Halere, etiketatzailen artean, adibide erroredun bakoitzari kode bakar bat esleitzea izan da joera orokorra. Pare bat esalditan hiru hizkuntzalarik sailkatu dituzte errore adibide berberak kategoría batean baino gehiagotan, eta esaldi bakar batean sei hizkuntzalarik bat egin dute errorea bi kategoriatan sailkatzen. Baina esan bezala, oro har, errore bakoitzeko kategoría bakar bat esleitu dute.
- Hizkuntzalari batek ez ditu errore-kategoriak gehiegi zehaztu, hau da, azpikategoría nagusien kodeak esleitu ditu beherago jaitsi gabe.
- Guk errore asko aurreikusi ditugun esaldietan, hizkuntzalariak ez dira berehalakoan bat etorri errore berdinak detektatu eta kategoría berdinetan sailkatzerakoan. Izan ere, esaldiak luzeak, aldrebesak eta ulertezinak diren kasuetan, esaldia bere osotasunean zuzentzea da normalena (esaldi osoa berridatziz) eta oso zaila gertatzen da errore bakoitzeko kategoría zehatzak esleitzea.
- Bost hizkuntzalarik komentatu digute errazagoa egin zaiela erroreak sailkatu aurretik zuzentzea eta ondoren kategorizatzea. Sailkapena pixka bat ezagutzen zuten hiru hizkuntzalarik, aldiz, lehenengo erroreak sailkatu dituzte eta gero zuzendu. Eta

gainerako hiruk batzuetan sailkatu ondoren zuzendu dituzte eta beste batzuetan alderantziz, zuzendu eta ondoren sailkatu (errorea sailkatzeko zailtasunaren arabera).

- Aurreikusitako moduan, hizkuntzalariek erroreen zuzenketari dagokionean hartutako jarrerak eta ikuspuntuak oso ezberdinak izan dira: bik esaldi guztiak berridatzi dituzte sailkatzen ari diren erroreak nabarmenduz; beste bik batzuetan esaldi osoak berridatzi dituzte eta beste batzuetan erroredun zatia bakarrik, irizpide zehatzik jarraitu gabe; eta gainerako zazpi hizkuntzalariek sailkatu beharreko erroreen zuzenketa bakarrik eman dute, zuzenketa bakar bat proposatuz. Erroreak/desbideratzeak zuzentzean guztion jarrerak hain ezberdinak direlako hain zuzen, beharrezkoa ikusi dugu irizpide batzuk finkatzea, bai sailkapen prozesuaren inguruan eta bai aipatutako aplikazioen erabileraren inguruan, eta etiketazaileei jakinaraztea denek modu ahalik eta koherenteenean jokatzeko.

- Sailkapenaren egiturari dagokionean, zazpi hizkuntzalarik zehatzegia dela komentatu digute. Sailkapena pixka bat ezagutzen zuten lauk, ordea, sailkapen zehatzaren alde egin dute, corpus errealetan topatutako erroreak sailkatzeko aukera zabalagoa eskaintzen duela esanaz. Ikuspegi konputazionaletik ere, sailkapen zehatzek sendotasun handiagoa ziurtatzen dutela eta erroreen tratamendu automatikorako informazio-iturri aberatsagoa izango dela uste da.

- Hizkuntzalariei ariketa egiteko eskatu genienean, ez genien sailkapenaren egitura azaldu; eta ikusi dugu sailkapenaren nondik norakoak pixka bat ezagutzea lagungarria izango zitzaiela.

- Lehenago aipatu dugunez, erroreen tratamendua, kategorizazioa nahiz zuzenketa nahiko subjektiboak dira, hizkuntzalari/irakasle bakoitzak bere irizpideak eta ikuspuntuak baititu.


6.- ERROREAK eta DESBIDERATZEAK datu-baseak: bi ikuspegi ezberdin sailkapen berean

6.1.- Sarrera


Esan bezala, hemen aurkezten dugun erroreen sailkapen hau helburu ezberdinekin sortu diren bi datu-base hauen oinarria izango da:

ERROREAK datu-basearen (Arrieta *et al.*, 2003) helburua gramatika eta estilo zuzentzaile sendo baten garapenerako erroreen informazio tekniko eta linguistikoa gordetzea da. DESBIDERATZEAK datu-basea (Maritxalar, 1999) berriz euskara ikasleen tartehizkuntzari buruzko informazio psikolinguistikoaren iturri da. Izan ere, tartehizkuntzaren azterketa puri-purian dagoen gaia da, eta, horregatik, garrantzitsua iruditu zitzaigun DESBIDERATZEAK bezalako datu-base bat garatzea euskara irakasleentzat. Beraz, aipatu bi datu-baseak helburu ezberdinekin sortu baziren ere, bietan erroreei/desbideratzei buruzko datuak gordetzen dira (4. irudia):

DESBIDERATZEAK datu-basea



ERROREAK datu-basea




4. irudia: DESBIDERATZEAK eta ERROREAK datu-baseetan gordetzen den informazioaren zati bat

ERROREAK datu-basean erroreak sailkatu eta errore horien kategoria, deskribapena, zuzenketa, eta errorea detektatzeko erabil daitezkeen LNP tresnak zehazten dira. DESBIDERATZEAK datu-basean, berriz, euskara ikasleek egindako desbideratzeen diagnosiari buruzko informazioa gordetzen da. Horretarako, desbideratzeak eta hauen arrazoiak sailkatzeaz gain, ikaslearen ezaugarriak (datu pertsonalak, hizkuntza-maila, ama-hizkuntza, etab.) ere zehazten dira. Hizkuntz ikasleen desbideratzeen azterketa, gaur egun, ikasleen tartehizkuntza eta ikasketa prozesua ezagutzeko bide egokia kontsideratzen da. Desbideratzeak sailkatuz eta aztertuz, ikerlariek ikaskuntza prozesuan parte har dezakete ikas estrategia egokiagoak proposatuz, bakoitzaren beharren eta zailtasunen arabera laguntzak eskainiz, tresna hobekak garatuz, etab. Eta hau da, hain zuzen ere, DESBIDERATZEAK datu-basearen helburuetako bat⁸.

6.2.- Bi datu-baseen integrazioa

Datu-base hauek bi web aplikazio ezberdinetan erabiltzen dira. Alde batetik, Erreus web aplikazioak ERROREAK datu-basea du bere oinarrian. Eta Irakazi-k, berriz, bi datu-baseak baliatzen ditu: ERROREAK eta DESBIDERATZEAK (ikus 5. irudia):

⁸ DESBIDERATZEAK eta ERROREAK datu-baseak betetzeko informazio-iturri nagusia osatu dugun erroredun corpusa da. Corpus erroreduna euskara ikasleen testuek eta jatorri ezberdina duten errore adibideek osatzen dute. Guztira, 257.992 hitzeko corpusa bildu dugu; horietatik 242.940 hitz ikasleen testuei dagozkienak dira eta gainerako 15.052 hitzak beste errore adibideei dagozkienak. Euskara ikasleen testuak zazpi euskaltegi ezberdinetatik iritsi zaizkigu eta gehienak mailaka antolatuta dauzkagu, kasu batzuetan ikasleak identifikatuta daudelarik.



5. irudia: DESBIDERATZEAK eta ERROREAK datu-baseen integrazioa

Txosten honen helburua hauxe izan ez arren, interesgarria deritzogu bi datu-baseen integrazioa, labur-labur bada ere, hemen azaltzea, bai baitu aurkeztutako erroreen sailkapenarekin nolabaiteko loturarik.

Integrazioaren bi gai nagusienak honako hauek dira: erroreen sailkapena eta informazio komuna.

Sailkapenari dagokionean, ERROREAK eta DESBIDERATZEAK datu-baseetan erroreen sailkapen berbera baliatzea erabaki dugu; batetik, helburu ezberdinak izan arren, bi datu-baseek erroreak edota desbideratzeak gordetzen dituztelako; bestetik, bi ikuspuntuak bateragarriak ikusten ditugulako; gainera, zaila litzatekeelako, bi sailkapen izanez gero, sailkapenetako bat aldatzen zen bakoitzeko eguneratu beharreko baliokidetasun-taula bat mantentzea.

Informazio partitzeari dagokionez, erabaki dugu hobe dugula errore/desbideratze instantzien eta hauen zuzenketen bikoiztea ahal den neurrian ekiditea. Horretarako, ERROREAK datu-basearen tauletan DESBIDERATZEAK datu-baseko hainbat datu gordetzen dira.

Bi datu-baseak integratuz, Irakazi aplikazioaren interfazetik desbideratze berri bat sartzen dugunean, ERROREAK datu-basean ere automatikoki gordetzen da adibide bera. Erreus-etik sartzen diren erroreak, ordea, ERROREAK datu-basean bakarrik gordetzen dira. Honek esan nahi du Erreus-en ikasleen desbideratzeak eta gainontzeko erroreak ikusiko ditugula eta Irakazi-n, berriz, euskara ikasleen desbideratzeak bakarrik.

6.3.- Sailkapenaren erabilera publikoa eta pribatua

Hemen aurkezten dugun erroreen sailkapena Interneten atzigarri dago corpus erroredunetan detektatzen ditugun erroreak modu antolatu batean osatzeko helburuarekin.

Sailkapen hau erabiltzaile askok baliatzeko garatu dugunez, eta bakoitzak alor hauetan dituen ikuspuntuak, jakintzak edota esperientziak ezberdinak izango direnez, garrantzitsua deritzogu bi datu-baseek (ERROREAK-ek eta DESBIDERATZEAK-ek) gune publikoa eta pribatua edukitzea. Gune publikoak bi erabilera izango ditu: bata kontsultak egiteko soilik; eta bestea adibide berriak sartuz datu-basea osatzeko eta aberasteko (gune honetan sartu ahal izateko, erabiltzaileak erregistratu egin beharko du). Gune pribatua, berriz, hizkuntzalari konputazional batek kontrolatuko du. Honek gune publikotik sartu diren adibideak gainbegiratuko ditu, beharra ikusiz gero zuzenketak egingo ditu eta erroreen tratamendu automatikorako beharrezkoa den informazio teknikoa gehituko du. Horretaz gain, gune publikotik sartutako datuen arabera sailkapena eguneratuko du beharra ikusten denean.

7.- Ondorioak eta etorkizuneko lana

Hemen aurkeztu dugun euskarazko erroreen sailkapena Interneten dago erabilgarri, kontsultak egiteko nahiz, datu berriak sartuz, bai ERROREAK eta bai DESBIDERATZEAK datu-baseak aberasteko. Bi datu-base hauetan jasotzen diren adibideak informazio-iturri aberatsa izango dira i) euskara ikasleen tartehizkuntza corpus errealetan oinarriturik aztertzeke eta ii) erroreen tratamendu automatikoan ikertzen jarraitzeke gramatika eta estilo zuzentzaile bat garatze aldera. Sailkapena ondoko helbideetan dago atzigarri:

- **Erreus:** <http://ixa.si.ehu.es/Erreus>
- **Irakazi:** <http://ixa.si.ehu.es/irakazi>

Honela bada, DESBIDERATZEAK datu-basean gordetako informazio psikolinguistikoa baliatu ahalko dugu ikas estrategiak eta materialak ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko. Bestalde, azterketa linguistikoko automatikoari dagokionean, errore batzuk automatikoki detektatzeko ditugun erregelak (komunztadura-erroreak, postposizio erroreak edota komaren erabilera ez-egokiak detektatzen dituztenak) hobetu ahalko ditugu eta baita erregela berriak formulatu ere, errore sintaktiko berriak automatikoki tratatu ahal izateko.

Honez gain, aipatu behar dugu tresna-editore berri bat diseinatu dugula erroreak corpusetatik bertatik etiketatzeko (Aldabe *et al.*, 2005). Aplikazio honi esker, bi datu-baseak testuetatik bertatik automatikoki osatu eta aberastu ahal izango ditugu.

Gainera, azpimarratu nahiko genuke sailkapen hau euskarazko erroreak biltegitratzeko sortua izan bada ere, bai bere egitura eta bai erroreen analisiaren, sailkapenaren eta tratamenduaren inguruan finkatu ditugun irizpideak edozein hizkuntzatara aplikagarriak iruditzen zaizkigula.

Eta, azkenik, esan behar dugu oraindik ere galdera asko daudela erantzuteke eta egiteko asko dagoela errorean analisiari eta tratamendu automatikoari dagokionean, bai Ordenagailuz Lagundutako Hizkuntzen I(ra)kaskuntzaren alorrean eta baita ere Zuzentzaile Gramatikalari dagokion alorrean. Guk, gure aldetik, gauza interesgarriak egin daitezkeela aurreikusten dugu, eta, besteak beste, proiektu hauek darabilzkigu buruan epe laburrean garatzen hasteko: testuen zuzenketa gidatua ikaslearen profilaren arabera; idazlanen ebaluazio automatikoa; hizkuntz ariketen sorkuntza automatikoa; eta abar.

Eskerrak

Gure eskerrik beroenak IXA taldeko hizkuntzalariei beren laguntza eta partehartzearengatik errorean sailkapenaren ebaluazioan.

Erreferentziak

- Aduriz I. (1994). *Errore ortografikoen azterketa eta zuzenketa bi mailatako morfologiaren arabera*. UPV/EHU Euskal Filologia. Barne-txostena-doktoregoa.
- Aduriz I., Aldezabal I., Aranzabe M., Arrieta B., Arriola J., Atutxa A., Díaz de Ilarraza A., Gojenola K., Oronoz M., Sarasola K., Urizar R. (2002). *The design of a digital resource to store the knowledge of linguistic errors*. DRH2002 (Digital Resources for the Humanities). Edimburgo.
- Aldabe I., Amoros L., Arrieta B., Díaz de Ilarraza A., Maritxalar M., Oronoz M., Uria L. (2005). *Learner and Error Corpora Based Computational Systems*. In Proceedings of the PALC 2005 Conference. Poland.
- Arrieta B., Díaz de Ilarraza A., Gojenola K., Maritxalar M., Oronoz M. (2003). *A database system for storing second language learner corpora*. Learner corpora workshop. Corpus linguistics 2003. Lancaster, UK.
- Becker M., Bredenkamp A., Crysmann B., Klein J. (1999). *Annotation of Error Types for German News Corpus*. In Proceedings of the ATALA workshop on Treebanks, Paris.
- Borin L. (2002). *What have you done for me lately? The fickle alignment of NLP and CALL*. Reports from Uppsala Learning Lab.
- Díaz, A.M. (2005). Tipología de errores gramaticales para un corrector automático; en Proceedings del XXI Congreso de la Sociedad Española para el Procesamiento del Lenguaje Natural, núm. 35, pp. 409-416.

- Díaz de Ilarraza A., Maritxalar A., Maritxalar M., Oronoz M. (1999). *IDAZKIDE: an intelligent CALL environment for second language acquisition*. Proceedings of a one-day conference "Natural Language Processing in Computer-Assisted Language Learning" organised by the Centre for Computational Linguistics, UMIST, in association with EUROCALL, a special ReCALL publication, 12-19. UK.
- E. Dagneaux, S. Denness & S. Granger (1998). *Computer-Aided Error Analysis*. System, Vol. 26, 163-174.
- Euskaltzaindia (1993). *Euskal Gramatika Laburra*. Bilbo.
- Fernández, S. (1997). *Interlengua y Análisis de Errores en el aprendizaje del español como lengua extranjera*. Ed. Edelsa.
- Gojenola, K. (2000). *EUSKARAREN SINTAXI KONPUTAZIONALERANTZ. Oinarrizko baliabideak eta beren aplikazioa aditzen azpikategorizazio-informazioaren erauzketan eta errorearen tratamenduan*. Informatika Fakultatea, UPV-EHU, 2000ko uztailaren 20a, Kepa Sarasola Donostiako Informatika Fakultateko (UPV/EHU) irakaslearen zuzendaritzapean eginiko tesia.
- Gojenola, K. eta Oronoz, M. (2000). *Corpus-Based Syntactic Error Detection Using Syntactic Patterns*. NAACL-ANLP00, Student Research Workshop. Seattle.
- Granger S. (2002). *A Bird's-eye view of learner corpus research*. Computer Learner Corpora, Second Language Acquisition and Foreign Language Teaching, p. 3-33, Benjamins, Amsterdam and Philadelphia.
- HABE (1999). *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua*. 120-131. or., Donostia.
- James, C. (1998). *Errors in Language Learning and Use: Exploring Error Analysis*. Longman.
- Laka, I. *A Brief Grammar of Euskera*. Internet: <http://www.ehu.es/grammar/>
- Larsen-Freeman D. & H. Long M. (1994). *Estudio de la adquisición de segundas lenguas*. Gredos, p. 61.
- Maritxalar M., Díaz de Ilarraza A., Alegria I., Ezeiza N. (1996). *Modelización de la competencia gramatical en la interlengua basada en el análisis de corpus*. Procesamiento del Lenguaje Natural (SEPLN), Revista no. 19, 166-178. Sevilla.
- Maritxalar M. (1999). *MUGARRI: A multisystem environment to acquire the linguistic knowledge of second language learners*. PhD, EHU, Donostia.
- Norrish J. (1983). *Language learners and their errors*. London: The Macmillan Press Ltd.
- Ortiz de Urbina, J. (2001). *A Grammar of Basque*. University of Deusto.
- Richards, J.C. (1974). *Error Analysis: Perspectives on Second Language Acquisition*. Longman, London.
- Richards, J.C. (1974). *A non-contrastive approach to error analysis*. Longman, London.
- Sarrionandia B. (1999). *Perfiles lingüísticos: modelo alternativo de evaluación de la competencia del euskera*. Tesis doctoral; director: Jon Franco; fecha de lectura: 26-11-99.

- Selinker, L. (1972). *Interlanguage; International Review of Applied Linguistics*. Vol. 10 No. 3: 209-231.
- Selinker, L. (1992). *Rediscovering Interlanguage*. Longman, London and New York.
- Txillardegui (1978). *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas, Bilbo.
- Vilius Juozulynas (1994). *Errors in the compositions of 2nd year german students: an empirical study for parser-based ICALI*. CALICO Journal, Vol. 12, No. 1.
- Zubiri, I. eta Zubiri, E. (1995). *Euskal Gramatika Osoa*. Didaktiker SA, Bilbo.

A eranskina

ERROREak sailkapena

1.- Ortografikoak

- 1.1.- Zenbakiak
- 1.2.- Errore tipikoak
- 1.3.- Mailegu hitzak
- 1.4.- Latinajoak
- 1.5.- Izen bereziak
- 1.6.- Haulak
- 1.7.- Bestelakoak

2.- Morfologikoak, sintaktikoak eta morfosintaktikoak

- 2.1.- Erorriak
- 2.2.- Aditzak
 - 2.2.1.- Aspektu morfologikoa
 - 2.2.2.- Denbora
 - 2.2.3.- Modua
 - 2.2.4.- Erregimena
- 2.3.- Datak
- 2.4.- Postposizioak
- 2.5.- Adberbioen erabilera okerra
- 2.6.- Egitura eginak
 - 2.6.1.- Graduatzaileak
 - 2.6.2.- Harik eta... arte
 - 2.6.3.- Ezta... ere
- 2.7.- Esaldi erreflexiboak
- 2.8.- Hitzen ordena
- 2.9.- Komunztadura
 - 2.9.1.- Komunztadura perpausean
 - 2.9.2.- Komunztadura esaldian
 - 2.9.3.- Komunztadura aposiziotan
 - 2.9.4.- Komunztadura zatian
 - 2.9.4.1.- Mugagabea determinatzailearekin
- 2.10.- Mendeko esaldiak
 - 2.10.1.- Konpletiboa ezezkoan
 - 2.10.2.- Kausazkoak
 - 2.10.2.1.- ZERGATIK hitza erantzuteko erabiltzea
 - 2.10.2.2.- -LAKO erabiltzean elementuen ordena nahastea
 - 2.10.3.- Mendekoan azpikategoriazioa
 - 2.10.4.- Erlatibozkoa konpletiboarekin nahastea
 - 2.10.5.- Erlatibozkoetan elementuen ordena
 - 2.10.6.- Zehar galdera
 - 2.10.6.1.- -N kentzea
 - 2.10.6.2.- BA aurrizkiaren erabilera okerra
 - 2.10.7.- Denborazkoak
 - 2.10.7.1.- -KO eta -T(Z)EN nahastea
 - 2.10.8.- Kontzesiboak
 - 2.10.9.- Moduzkoak
 - 2.10.10.- Konparaziozkoak
 - 2.10.10.1.- HOBE eta HOBETO nahastea
 - 2.10.10.2.- -TA formaz osatutako partizipio aderbialeki -AGO ge
 - 2.10.10.3.- Forma determinatuak-indeterminatuak nahastea
 - 2.10.10.4.- Kasu desberdinetan deklinatzea

3.- Semantikoak

- 3.1.- Homofonoak
- 3.2.- Adjetibo-adberbioak trukatzea
- 3.3.- Bizidun-bizigabe
- 3.4.- Baso bat ur - ur baso bat
- 3.5.- Bero naiz - Beroa naiz

4.- Puntuazio ikurrak

- 4.1.- Galdera-harriduren aurreko ikurrak jartzea
- 4.2.- Aposizioak
- 4.3.- Lokailuak
- 4.4.- Puntu ondoren minuskula
- 4.5.- Puntu eta koma ondoren maiuskula
- 4.6.- Hitz zerrendak komaz banatu gabe

5.- Estilo kontuak

- 5.1.- Puntuazio ikurraren aurretik zurigunea
- 5.2.- Puntuazio ikurraren ondoren zurigunerik ez
- 5.3.- Esaldi luzeegiak

6.- Hizkuntza maila eta hobespenak

- 6.1.- Lexikoa
- 6.2.- Gosea daukat - trafiko asko eta antzekoak

B eranskina

Euskarazko erroreen sailkapena (7 kategoria nagusi, 155 azpikategoria, 129 hosto)

1.- Ortografikoak: unitate gisa beti gaizki dauden hitzak, ortografikoki gaizki dagoen oro.

1.1.- Letrak kendu (hitzari letra bat kendu):

- 1.1.1.- LEKHE (LEtra Kendu Hasieran, E): *ta
- 1.1.2.- LEKHH (LEtra Kendu Hasieran, H): *erri
- 1.1.3.- LEKTA (LEtra Kendu Tartean, A): *Donostitik
- 1.1.4.- LEKTE (LEtra Kendu Tartean, E): *oihanan
- 1.1.5.- LEKTD (LEtra Kendu Tartean, D): *euki
- 1.1.6.- LEKTH (LEtra Kendu Tartean, H): *biotza
- 1.1.7.- LEKTRE (LEtrak Kendu Tartean, RE): *soldatakin
- 1.1.8.- LEKTTA (LEtrak Kendu Tartean, TA): *nagusietik
- 1.1.9.- LEKBR (LEtra Kendu Bukaeran, R): *ze

1.2.- Letrak gehitu (hitzari letra bat gehitu):

- 1.2.1.- LEGHH (LEtra Gehitu Hasieran, H): *harrisku
- 1.2.2.- LEGTA (LEtra Gehitu Tartean, A): *institutoako, *Azpeitiara
- 1.2.3.- LEGTE (LEtra Gehitu Tartean, E): *euskalduneeen
- 1.2.4.- LEGTI (LEtra Gehitu Tartean, I): *laister
- 1.2.5.- LEGTZ (LEtra Gehitu Tartean, Z): *jasatzen
- 1.2.6.- LEGBN (LEtra Gehitu Bukaeran, N): *bainan
- 1.2.7.- LEGBTU (LEtrak Gehitu Bukaeran, TU): *gordetu

1.3.- Letrak ordezkatu (letrak ordezkatu):

- 1.3.1.- LEOEAE (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, A beharrean E): *erreztasuna
- 1.3.2.- LEOEEA (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, E beharrean A): *ospatsuak
- 1.3.3.- LEOEEI (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, E beharrean I): *erlien
- 1.3.4.- LEOEIE (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, I beharrean E): *nere
- 1.3.5.- LEOEOU (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, O beharrean U): *freskua
- 1.3.6.- LEOEUO (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, U beharrean O): *partido
- 1.3.7.- LEOEDR (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, D beharrean R): *inbiria
- 1.3.8.- LEOEHJ (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, H beharrean J): *zijoala
- 1.3.9.- LEOEJG (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, J beharrean G): *imaginazioan
- 1.3.10.- LEOENM (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, N beharrean M): *trampa
- 1.3.11.- LEOEXJ (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, X beharrean J): *keja
- 1.3.12.- LEOESZ (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, S beharrean Z): *garrazia
- 1.3.13.- LEOESX (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, S beharrean X): *experientzia
- 1.3.14.- LEOEZS (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, Z beharrean S): *arasoak

- 1.3.15.- LEOEZX (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, Z beharrean X):
*baxter
- 1.3.16.- LEOEXS (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, X beharrean S):
*piskanaka
- 1.3.17.- LEOEXZ (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, X beharrean Z):
*gaizotasunez
- 1.3.18.- LEOEZZ (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, Z beharrean TZ):
*zehatzki
- 1.3.19.- LEOEZX (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, Z beharrean TX):
*txorakeriak
- 1.3.20.- LEOETSS (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, TS beharrean S):
*konserbadore
- 1.3.21.- LEOETZZ (LEtra Ordezkatu Edozein tokitan, TZ beharrean Z):
*proporzioak
- 1.4.- Letrak ordenaz aldatu (letren ordena aldatu):
 - 1.4.1.- LEOAH (Letra Ordenaz Aldatu, H): *lehioa
 - 1.4.2.- LEOATE (Letrak Ordenaz Aldatu, TE/KE): *lutekela
- 1.5.- Lemen lotura (lemak lotu edo banandu):
 - 1.5.1.- LMA-ELK (LeMAk ELKartuta): *hitzegin
 - 1.5.2.- LMA-BAN (LeMAk BANanduta): *bait du
- 1.6.- Gidoiak (gidoien erabilera okerra):
 - 1.6.1.- GIDK (GIDoia Kendu): *jaun andre
 - 1.6.2.- GIDG (GIDoia Gehitu): *hitz-elkartu
- 1.7.- Bestelakoak

2.- Lexikoak: gehienak, asmatutako hitz berriak (asmatutako hitz gehienak ortografikoki gaizki egongo dira).

- 2.1.- Maileguak: LMA-M (LeMA, Mailegua): *afamatu; moskeatu
- 2.2.- Konposizioa eta Eratorpena: KONERA (KONposizioa eta ERAtorpena):
*afaltzaile; haurtoki
- 2.3.- Generoa: GENE (GENEroa gaizki erabiltzea): *aitak etorri dira oporretatik;
musika klasika zoragarria da
- 2.4.- Esamoldeak eta Kolokazioak: ESAMOL (ESAMOLdeak): *lur eta zur; siesta bota
- 2.5.- Bestelakoak

3.- Morfologikoak, sintaktikoak, morfosintaktikoak: ortografikoki ondo egon arren, testuinguru morfosintaktikoan gaizki dauden egiturak.

- 3.1.- Deklinabidea: (deklinabide erroreak)
 - 3.1.1.- DEKL (DEKLinabide kasu okerrak): *Jonen autoaz etorri naiz; prest dago guri zirkora eramateko
 - 3.1.2.- INS (INStrumentaltasuna): *haizkorarekin ebaki dugu;
- 3.2.- Determinantea: (determinanteen erabilera okerra)
 - 3.2.1.- DETMK (DETerminante Mugatzailea Kendu): *txokolate nahi dut
 - 3.2.2.- DETMG (DETerminante Mugatzailea Gehitu): *zer ordua da?
- 3.3.- Izenordainak: (izenordainen erabilera okerra)
 - 3.3.1.- IZEORD (IZEEn ORDainen erabilera okerra): *bere buruari ikusi da/bera ikusi da; elkarri hitz egin dute
 - 3.3.2.- IZEORDZG (IZEEn ORDain ZehaztuGabeak): *ez dut nahi ezer ez

- 3.4.- **Adjektiboak eta Adberbioak:** (adjektiboen eta adberbioen erabilera okerra)
- 3.4.1.- **ADJADB** (**ADJ**ektiboa eta **ADB**erbioa nahastea): *hobe egin du
- 3.4.2.- **ADJIA** (**ADJ**ektiboa Izenaren Aurretik jartzea): *ekonomiko arazoak dauzkate
- 3.4.3.- **ADJGRA** (**ADJ**ektibo **GRA**duatzaileen erabilera okerra): *hobeago
- 3.4.4.- **ADJGN** (**ADJ**ektibo **GAL**detzaileen eta **Nol**akotzaileen erabilera okerra): *nola dira zure gurasoak?
- 3.5.- **Aposizioak:** (aposizioen erabilera okerra)
- 3.5.1.- **APOS** (**APOS**izioen erabilera okerra): *Zure lagunari, Dublinen bizi dena, sari bat eman diote
- 3.6.- **Postposizioak:** (postposizioen erabilera okerra)
- 3.6.1.- **POST** (**POST**posizioen erabilera okerra): *Izaskun buruz hizketan ibili da;
- 3.7.- **Aditza:** (aditzen erabilera okerra)
- 3.7.1.- **ADAM** (**AD**itzaren **Den**bora, **Asp**ektua edota **Modu**a nahastea): *hori zen bere herritik gehien gustatzen zaiona; goaz mendira?
- 3.7.2.- **Aditz-paradigmen nahasketa:** (aditz-paradigmak nahastea)
- 3.7.2.1.- **PARADIG_N_N-NK** (Nor eta Nor-Nor**K** aditz-paradigmak nahastea): *ez da funtzionatzen
- 3.7.2.2.- **PARADIG_N_N-NI** (Nor eta Nor-Nor**I** aditz-paradigmak nahastea): *nagusiarri zuzendu da
- 3.7.2.3.- **PARADIG_N-NI_N-NK** (Nor-Nor**K** eta Nor-Nor**I** aditz-paradigmak nahastea): *niri hori ez zait molestutzen
- 3.7.2.4.- **PARADIG_N-NK_N-NI-NK** (Nor-Nor**K** eta Nor-Nor**I**-Nor**K** aditz-paradigmak nahastea): *Joni ikusi diot
- 3.7.2.5.- **PARADIG_N-NI_N-NI-NK** (Nor-Nor**I** eta Nor-Nor**I**-Nor**K** aditz-paradigmak nahastea): *gustatzen dit
- 3.8.- **Komunztadura** (komunztadura erroreak)
- 3.8.1.- **KOMSIN** (**SIN**tagma barruko **KOM**unztadura eza): *gurasoak eta lagunez mintzatu zara; guk geu
- 3.8.2.- **KOMAPOS** (**KOM**unztadura eza **APOS**izioan): *zure laguna, Dublinen bizi denari, sari bat eman diote
- 3.8.3.- **KOMP** (**KOM**unztadura eza **Per**pausean)
- 3.8.3.1.- **Aditza – Subjektua**
- 3.8.3.1.1.- **KOMPAS-NUM** (**KOM**unztadura eza **Per**pausean, **Aditza** eta **Subjektua**ren artean, **NUM**eroari dagokionean: aditzean subjektuari dagokion numeroa eta subjektuan agertzen den numeroa ez datoz bat): *aurrerapen haundia daude; gizonek egin du
- 3.8.3.1.2.- **KOMPAS-KAS** (**KOM**unztadura eza **Per**pausean, **Aditza** eta **Subjektua**ren artean, **KAS**uari dagokionean: aditzean subjektuari dagokion kasua eta subjektuan agertzen den kasua ez datoz bat): *zuk etorri zara; nik esnatu naiz
- 3.8.3.2.- **Aditza – Objektua:**
- 3.8.3.2.1.- **KOMPAO-NUM** (**KOM**unztadura eza **Per**pausean, **Aditza** eta **Objektua**ren artean, **NUM**eroari dagokionean): *eman dizut liburuak; nik etxeak ikusi dut
- 3.8.3.2.2.- **KOMPAO-KAS** (**KOM**unztadura eza **Per**pausean, **Aditza** eta **Objektua**ren artean, **KAS**uari dagokionean): *nik etxeek ikusi ditut
- 3.8.3.3.- **Aditza – Zehar-objektua**
- 3.8.3.3.1.- **KOMPAZO-NUM** (**KOM**unztadura eza **Per**pausean, **Aditza** eta **Zehar Objektua**ren artean, **NUM**eroari dagokionean): *ziberespazioan dabilzan pertsonen izena da; emaitzei dagokiona

- 3.8.3.3.2.- **KOMPAZO-KAS** (KOMunztadura eza Perpausean, Aditza eta Zehar Objektuaren artean, KASuari dagokionean): *nik haiek eman diet
- 3.8.3.4.- Aditza – Predikatua
- 3.8.3.4.1.- **KOMPAP** (KOMunztadura eza Perpausean, Aditza eta Predikatuaren artean): *gure erleak oso soziablea dira
- 3.8.4.- **KOMM** (KOMunztadura eza Mendekoetan): *goxoki asko jaten duen umeek kariesa dute
- 3.8.5.- **KOMT** (KOMunztadura eza Testuinguruan)
- 3.9.- **Mendeko esaldiak** (mendeko esaldien erabilera okerra)
- 3.9.1.- **MEN-KON** (konpletiboak): *ez dut uste etorriko dela; gizon horrek esan du nik istilua izan dut
- 3.9.2.- **MEN-ZG** (zehar-galderak): *ez dakit nor da; galdetu ea joango bada
- 3.9.3.- **MEN-HEL** (helburuzkoak): *etxera noa afaltzeko; paseatzeko joan dira
- 3.9.4.- **MEN-KAU** (kausazkoak): *zergatik ez zinen joan? zergatik ez neukan gogorik; ez delako etorri ez dugu ikusi
- 3.9.5.- **MEN-BAL** (baldintzazkoak): * edukiz gero dirua; kontuz ez ibiliz gero
- 3.9.6.- **MEN-ERL** (erlatibozkoak): *mutil bat etorri da zu ezagutzen zaituela; nik eman dizut liburua polita da
- 3.9.7.- **MEN-DEN** (denborazkoak): *helduko denean, abisatu; ikusiko dudanean esango diot
- 3.9.8.- **MEN-KONT** (kontzesiboak): *izan arren berandu, joan egingo naiz; ez bada ere oso handia, guztiok sartuko gara
- 3.9.9.- **MEN-MOD** (moduzkoak): *Jon zu bezala da; ez dira uste nuen bezala
- 3.9.10.- **MEN-KONP** (konparaziozkoak): *zuk baino dirua gehiago daukat
- 3.9.11.- **MEN-NOM** (nominalizazioa): *ezin nuen liburua irakurtzen
- 3.10.- **Perpausen egitura:** (perpausen egitura okerra)
- 3.10.1.- **HITZOR-S** (HITZen Ordena, Sintaxiari dagokionean): *jakin dudanez auzokide baten bitartez Udalak dirua eskaintzen du; arrantza motak erabiltzen zirenak; oso erle fina ez baitzen
- 3.11.- **Juntagailuak eta lokailuak:** (JUNtagailuen eta LOKailuen erabilera okerra)
- 3.11.1.- **JUNLOK** (JUNtagailuak eta LOKailuak gaizki erabiltzea):
- 3.12.- **Bestelakoak**
- 4.- **Nozioak:** nozioekin erabiltzen diren egitura ez-zuzenak.
- 4.1.- **Denbora:** **DENNOZ** (DENbora **NOZ**ioa): *ostirala afaria daukat; egun guztietan joaten naiz
- 4.2.- **Ordua:** **ORDNOZ** (ORDuaren **NOZ**ioa): *zazpiak t'erdietan goaz; bost t'erditan
- 4.3.- **Data:** **DATNOZ** (DATaren **NOZ**ioa): *Donostia, 1995eko urtarrilak 15ean; Donostian, 1995eko martxoaren 22
- 4.4.- **Eguraldia:** **EGUNOZ** (EGUraldiaren **NOZ**ioa): *atertu da; euria ari da
- 4.5.- **Sentipenak:** **SENNOZ** (SENtipenaren **NOZ**ioa): *gosea daukagu; beldurra det
- 4.6.- **Zenbatasuna:** **ZENNOZ** (ZENbatasunaren **NOZ**ioa): neurria eta kopurua, zenbagarri/zenbakaitz): *hiru kilo sagarrak; bero/gose/antz asko
- 4.7.- **Zenbakiak:** **ZENB** (ZENBakiak gaizki idatzita): *mila bederatzehun pezeta; hiru mila eta zazpiehun eta hoge
- 4.8.- **Bestelakoak**

5.- Semantikoak: ortografikoki nahiz sintaktikoki ongi daudenak, baina testuinguruan edota esanahiari dagokionean zentzurik ez dutenak.

5.1.- Hitz mailakoak: (hitz mailako erroreak)

5.1.1.- Sasi-adiskideak (hitz bat beste batekin nahastu, ezberdintasunak jakin gabe):
xelebre (célebre); azienda (hacienda)

5.1.2.- Pare dikotomikoak (fonetikoki berdinak ala antzekoak diren hitzak, baina ezberdin idatzi eta esanahi ezberdina dutenak): hura – ura; ari – hari; hasi – hazi, atso – atzo; arrakasta – arrastaka, arazo – azaro

5.2.- Esaldi mailakoak: (esaldi mailako errore semantikoak) (*)mahaia edan nuen

5.3.- Esamolde edo egitura zuzenak ez dagokien egoeratan/momentutan erabiltzea: jaten ari den bati ‘bejondeizula’; arratsaldean ‘egun on’

5.4.- Bestelakoak

6.- Puntuazio ikurrak: puntuazio ikurren erabilerari dagozkien erroreak.

6.1.- PIE (Puntuazio Ikurra behar ez denean Erabiltzea):

6.1.1.- PIE- K (Puntuazio Ikurra behar ez denean Erabili, Koma)

6.1.2.- PIE- P (Puntuazio Ikurra behar ez denean Erabili, Puntua)

6.1.3.- PIE- BP (Puntuazio Ikurra behar ez denean Erabili, Bi Puntu)

6.1.4.- PIE-HP (Puntuazio Ikurra behar ez denean Erabili, Hiru Puntuak)

6.1.5.- PIE-GH (Puntuazio Ikurra behar ez denean Erabili, Galdera-Harridura)

6.2.- PIEE (Puntuazio Ikurra behar denean Ez Erabiltzea):

6.2.1.- PIEE-K (Puntuazio Ikurra behar denean Ez Erabili, Koma)

6.2.2.- PIEE-P (Puntuazio Ikurra behar denean Ez Erabili, Puntua)

6.2.3.- PIEE-BP (Puntuazio Ikurra behar denean Ez Erabili, Bi Puntu)

6.2.4.- PIEE-HP (Puntuazio Ikurra behar denean Ez Erabili, Hiru Puntuak)

6.2.5.- PIEE-GH (Puntuazio Ikurra behar denean Ez Erabili, Galdera-Harridura)

6.3.- PIO (Puntuazio Ikurrak Ordezkatzea edo nahastea):

6.3.1.- PIO_P-K (Puntuazio Ikurrak Ordezkatu, Puntua beharrean Koma)

6.3.2.- PIO_K-P (Puntuazio Ikurrak Ordezkatu, Koma beharrean Puntua)

6.3.3.- PIO_KB-P (Puntuazio Ikurrak Ordezkatu, Koma beharrean Bi Puntu)

6.4.- PIII (Puntuazio Ikurrak: parentesiak, komatxoak, barrak, gidoiak... ez Ixtea edo Irekitzea):

6.5.- Bestelakoak

7.- Estilo kontuak: gramatikalki ondo egon arren, estilo aldetik hobetu daitezkeenak.

7.1.- ESALUZ (ESAldi LUZeegiak)

7.2.- TESAN (TESu ANtolatzaileak: lokailuak, juntagailuak gehiegi erabiltzea edo errepikatzea)

7.3.- HITZOR-E (HITZen Ordena, Estiloari dagokionean)

7.4.- MAImin (MAIuskulak eta minuskulak)

7.5.- ZUN (ZUri UNeak)

7.6.- EKIDI (EKIDIIn diren egiturak)

7.7.- MAIZ (MAIZegi erabiltzen diren hitzak/egiturak)

7.8.- Bestelakoak

D eranskina

ARIKETA: adierazi esaldi bakoitzean ikusten d(it)uzuen errorea(k) sailkapeneko zein kategoriari dagokion.

Adibidea: *ez jo **umeari**

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 3.7.2.4.	- ez jo umea - ez jo umerik

1.- *Interneten ibiltzen diren pertsoneri modu honetan deitzen zaio

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 3.8.3.3.1.	- pertsoneri deitzen zaie
Linguista 1 - 3.8.3.3.1.	- deitzen zaie
Linguista 2 - 3.8.3.3.1.	- zaie
Linguista 3 - 3.8.4.	- Interneten ibiltzen diren pertsoneri modu honetan deitzen ZAIE
Linguista 4 - 3.8.3.	- deitzen zaie
Linguista 5 - 3.1.1. - 3.8.3.1.1.	- modu honetara - deitzen zaie
Linguista 6 - 3.8.3.1.1.	- zaie
Linguista 7 - 3.8.3.3.1.	- zaio > zaie
Linguista 8 - 3.8.3.3.1.	- deitzen zaie
Linguista 9 - 3.8.3.3.1.	- Interneten ibiltzen diren pertsoneri modu honetan deitzen zaie
Linguista 10 - 3.8.3.3.1.	- ... zaie
Linguista 11 - 3.8.3.1.1.	- Interneten ibiltzen diren pertsoneri modu honetan deitzen zaie

2.- *Donostiko hondartzak ez dira oso handiak

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 1.1.3. - 1.7.	- Donostiako - handiak
Linguista 1 - 1.1.3.	- Donostiako
Linguista 2 - 1.1.3.	- Donostiako
Linguista 3 - 1.1.3. - 1.7.	- DONOSTIAKO hondartzak ez dira oso handiak - Donostiako hondartzak ez dira oso HANDIAK
Linguista 4 - 1.2.	- handiak
Linguista 5 - 1.1.3. - 1.7.	- Donostiako - handiak
Linguista 6 - 1.1.3. - 1.7.	- Donostiako - handiak
Linguista 7 - 1.1.3. - 1.7.	- Donostiko > Donostiako - handiak > handiak
Linguista 8 - 1.1.3. - 1.7.	- Donostiako - handiak
Linguista 9 - 1.1.3. - 1.7.	- Donostiako - handiak
Linguista 10 - 1.1.3.	- Donostiako
Linguista 11 - 1.1.3. - 1.7.	- Donostiako hondartzak ez dira oso handiak

3.- *Arratsaldeko sortziak dira

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 1.3.14. / 4.7.	- zortziak
Linguista 1 - 1.3.14.	- zortziak
Linguista 2 - 1.3.14.	- zortziak
Linguista 3 - 1.3.14.	- Arratsaldeko ZORTZIAK dira
Linguista 4 - 1.3.	- zortziak
Linguista 5 - 1.3.14.	- zortziak
Linguista 6 - 1.3.14.	- zortziak
Linguista 7 - 1.3.14.	- sortziak > zortziak
Linguista 8 - 1.3.14.	- zortziak
Linguista 9 - 1.3.14.	- zortziak
Linguista 10 - 1.3.14.	- zortziak
Linguista 11 - 1.3.14.	- Arratsaldeko zortziak dira

4.- *Irakasle eta ikasleek elkar hitz egin diote

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 3.3.1.	- elkarrekin hitz egin dute / elkarri hitz egin diote
Linguista 1 - ? (laguntzailea dago gaizki)	- dute
Linguista 2 - 3.7. / 3.12 ?	- elkarren artean hitz egin dute
Linguista 3 - 3.3.1.	- Irakasle eta ikasleek ELKARRI hitz egin diote
Linguista 4 - 3.8.3. - 3.8.3.	- elkarri - elkarrekin hitz egiten dute
Linguista 5 - 3.3.1.	- elkarri
Linguista 6 - 3.8.1. - 3.1.1. - 3.7.2.4.	- irakasleek - elkarrekin - dute
Linguista 7 - 3.8.3.3.	- elkarri ... diote
Linguista 8 - 3.3.1	- elkarri hitz egin diote
Linguista 9 - 3.8.3.3.1.	- Irakasle eta ikasleek elkarri hitz egin diote
Linguista 10 - 3.7.2.4. - 3.8.1.	- Irakasleek eta ikasleek elkar hitz egin dute
Linguista 11 - 3.3.1.	- Irakasle eta ikasleek elkarrekin hitz egin dute (aditzaren erabilera okerra nola adierazi?)

5.- *abisatu ea etorriko bada

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 3.9.2. / - 3.9.5.	- abisatu ea etorriko den / - abisatu etorriko (baldin) bada
Linguista 1 - 3.9.2.	- etorriko den
Linguista 2 - 3.9.2.	- den
Linguista 3 - 3.9.2.	- Abisatu ea etorriko DEN (ala ez) / Abisatu ETORTZEN BADA
Linguista 4 - 3.9.2.	- den
Linguista 5 - 2.1. - 3.9.2. o 3.11.1	- abisatu - EA kendu edo BADA kendu eta DEN jarri
Linguista 6 - 3.9.2.	- den
Linguista 7 - 3.9.2.	- ea etorriko deN
Linguista 8 - 3.9.2.	- abisatu etorriko denentz / etorriko bada...
Linguista 9 - 3.9.7. ? - 3.9.5. ? - 3.9.1. ?	- Abisatu etortzen denean (?) - Abisatu etortzen bada (?) - Abisatu ea etorriko den (?)
Linguista 10 - 3.9.2.	- abisatu ea etorriko den (‘abisatu’ hemen arraroa da ezta? zalantza!)
Linguista 11 - 3.9.7.	- abisatu ea etorriko den

6.- *Nik hobeago kantatzen dut

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 3.4.3.	- hobeto
Linguista 1	- 3.4.3. - hobeto
Linguista 2	- 3.9.10. - hobeto
Linguista 3	- 3.4.1. - Nik HOBETO kantatzen dut.
Linguista 4	- 3.4.1. - hobeto
Linguista 5	- 3.4.1. - hobeto
Linguista 6	- 3.4.1. - hobeto
Linguista 7	- 3.4.1. / 3.4.3. - hobeago / hobeto
Linguista 8	- 3.4.1. - hobeto
Linguista 9	- 3.4.3. - hobeto - 2.5. (gaizki eratu hitza)
Linguista 10	- 3.4.3. - hobeto
Linguista 11	- 3.4.1. - nik hobeto kantatzen dut

7.- *Senar emazte horiek jantoki berri bat iriki dute

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)	
- 1.6.1. - 2.2.1. - 1.3.3.	- senar-emazte - jantoki - ireki	
Linguista 1	- 1.6.1. - senar-emazte - 2.2.1. - jantokxe / jantoki - 1.3.4. - ireki	
Linguista 2	- 1.6.1. - senar-emazte - 2.2.1. - jantokxe - 1.3.3. - ireki	
Linguista 3	- 1.6.1. - SENAR-EMAZTE horiek jantoki berri bat ireki dute. - 2.2.1. - Senar-emazte horiek JANTOKI berri bat ireki dute. - 1.3.3. - Senar-emazte horiek jantoki berri bat IREKI dute.	
Linguista 4	- 1.6.2. - senar-emazte - - jantoki - - ireki	
Linguista 5	- 2.2.1. - jantoki	
Linguista 6	- 2.2.1. - jantokxe / jantoki	
Linguista 7	- 2.2. - senar-emazte - 2.2. - jantoki (< jantoki) - 1.3.3. - ireki (< ireki)	
Linguista 8	- 1.6.1. - senar-emazte	
Linguista 9	- 1.6.1. - senar-emazte - 2.2. - jantoki, jantokxe - 1.3.3. - ireki - 7.8. - Senar-emazte horiek jantokxe bat ireki dute	
Linguista 10	- 1.6.1. (senar emazte) - 2.2. (jantoki) - 1.3.3. (ireki)	- Senar-emazte horiek <u>jantoki</u> bat <u>ireki</u> dute
Linguista 11	- 2.5. - numeroa gaizki	- senar-emazteak - jantoki berri bat iriki dute

8.- *Miren nahiko tonta da

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 2.1.1./2.3.1.	- tuntuna / tontoa
Linguista 1 - 2.3.	- tuntuna
Linguista 2 - 2.1.	- tuntuna
Linguista 3 - 2.3.1.	- Miren nahiko TUNTUNA da.
Linguista 4 - 2.3.	- tontoa
Linguista 5 - 2.3.1.	- tontoa
Linguista 6 - 2.1.1.	- tuntuna
Linguista 7 - 2.3.	- tonta > tontoa
Linguista 8 - 2.3.	- tuntuna
Linguista 9 - 1.7. - 2.3.	- tontoa - tontoa
Linguista 10 - 4.6. ? - 2.1.	- Miren tuntun samarra da
Linguista 11 - 2.1.	- Miren nahiko tuntuna da

9.- *hegoaldeko lagun ugari biltzen dira eguzkia eta bainuak hartzeko mugako beste aldean

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 7.4. - 3.1.1. / 3.6.1.	- Hegoaldeko - mugaren beste aldean / mugaz beste aldean
Linguista 1 - 3.6.1.	- mugaz beste aldean
Linguista 2 - 3.6.	- mugaren beste aldean
Linguista 3 - 3.8.3.1.1. - 3.6.1. - 3.10.1.	- hegoaldeko lagun ugari biltzen DA... - ... MUGAZ bestaldean - Mugaz bestaldean hegoaldeko...
Linguista 4 - 2.5.	- mugaz bestalde
Linguista 5 - 3.4.2.	- beste aldeko mugan
Linguista 6 - 3.8.3.1.1. - 2.1.1. - 7.3. - 3.6.	- da - bainatzeko - biltzen da mugaren beste aldean eguzkia... - mugaren
Linguista 7 - 3.10.1.	- mugako beste aldean eguzkia eta bainuak hartzeko
Linguista 8 - 7.4. - 2.5. - 3.1.1.	- Hegoaldeko - eguzkia hartzeko eta bainatzeko - mugaren beste aldean
Linguista 9 - 7.4. - 1.7. - 3.6. - 7.3. ?	- Hegoaldeko - Hegoaldeko (beste eremu bat ortografikoetan MAImin-entzat?) - mugaren beste aldean - Hegoaldeko lagun ugari biltzen dira mugaren beste aldean, eguzkia eta bainuak hartzeko
Linguista 10 - 7.4. - 7.3.	- Hegoaldeko - biltzen dira mugako beste aldean
Linguista 11 - 3.1.1.	- hegoaldeko lagun ugari biltzen dira eguzkia eta bainua hartzeko mugaz beste aldean

10.- *sagarrak jan du

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)
- 5.2. / - 3.8.3.2.1.	- sagarra jan du/sagarrak jan ditu / - sagarra jan du/sagarrak jan ditu
Linguista 1 - 3.8.3.2.1.	- ditu
Linguista 2 - 3.8.3.2.1.	- sagarrak jan ditu
Linguista 3 - 3.8.3.2.1.	- Sagarrak jan DITU / SAGARRA jan du. (semantika alde batera utzita, gramatikala bada neurri batean)
Linguista 4 - 3.8.3.2.	- jan ditu

Linguista 5	- 3.8.3.1.1.	- ditu
Linguista 6	- 3.8.3.2.1. - 5	- ditu - ? sagarrak jan du (semantikoa) (agian posible da)
Linguista 7	- 3.8.3.2.	- <u>sagarra</u> jan du / <u>sagarrak</u> jan <u>ditu</u>
Linguista 8	- 3.8.3.2.1.	- sagarrak jan ditu
Linguista 9	- 3.8.3.2. - 3.8.3.2.	- sagarrak jan ditut - sagarra jan du
Linguista 10	- 7.4. - 3.8.3.2.1.	- <u>Sagarrak</u> - ditu
Linguista 11	- 3.8.3.1.	- sagarra jan du

11.- *Joaten gara mendira?

Sailkapeneko kodea(k)	Zuzenketa(k)	
- 3.7.1.	- joango gara mendira?	
Linguista 1	- 3.7.1.	- joango
Linguista 2	- 3.7.1.	- joango gara mendira?
Linguista 3	- 3.7.1.	- JOANGO gara mendira?
Linguista 4	- 3.7.1.	- joango
